

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko apirilaren 24tik 30erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/04/24

- **BARNE MINISTERIOA. - Antolamendua.** - INT/382/2021 Agindua, apirilaren 19koa, Laguntza-bulego bat sortzen duena erregistroen esparruan, Espetxeetako Lana eta Enplegurako Prestakuntza Zuzenbide Publikoko Erakundearen egoitzan. **6623 xedapena - 3 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. - Lurreko garraioak.** - 284/2021 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, errepide bidezko garraiorako zenbait ibilgailuren gidarientzako hasierako kualifikazioa eta prestakuntza jarraitua arautzen dituen eta irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuak onetsitako Lurreko Garraioak Antolatzeko Legearen Araudia aldatzen duena. **6624 xedapena - 41 or.**

2021/04/28

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Premiazko neurriak.** - 7/2021 Errege Lege-dekretua, apirilaren 27koa, Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioa egiteko arlo hauetan: lehia, kapitalen zuritzearen prebentzioa, kreditu erakundeak, telekomunikazioak, zerga neurriak, ingurumen kalteak prebenitzea eta konpontzea, nazioz gairikoa zerbitzuak ematen dituzten langileen joan-etorriak eta kontsumitzaileen defentsa. **6872 xedapena - 176 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. - Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.** - HAC/411/2021 Agindua, apirilaren 26koa, salbuespenezko zenbait inguruabarrek eragindako nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboko metodoan aplikatzeko etekin garbiaren indizeak murrizten dituen 2020ko zerga-ekitaldirako. **6877 xedapena - 15 or.**
- **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA. - Industria segurtasuna.** - 298/2021 Errege Dekretua, apirilaren 27koa, industria segurtasuneko zenbait erregelamenduzko arau aldatzen dituen. **6879 xedapena - 46 or.**

- **OSASUN MINISTERIOA. – Osasun neurriak.** - SND/413/2021 Agindua, apirilaren 27koa, COVID-19ak eragindako osasun krisiak irauten duen bitartean Indiako Errepublikatik Espainiara datozen pertsonen bete beharreko berrogeialdi-baldintzei buruzkoa. 6880 xedapena - 5 or.

2021/04/29

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Erregistro Zibila. Botere Judiziala. Zigor Kodea.** - 6/2021 Lege Organikoa, apirilaren 28koa, Erregistro Zibilari buruzko uztailaren 21eko 20/2011 Legea aldatzen duen, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duen eta Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen apirilaren 28ko 6/2021 Legearen osagarria. 6944 xedapena - 4 or.
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Erregistro Zibila.** - 6/2021 Legea, apirilaren 28koa, Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legea aldatzen duena. 6945 xedapena - 14 or.

2021/04/30

- **BARNE MINISTERIOA. – Mugak.** - INT/420/2021 Agindua, apirilaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen den INT/657/2020 Agindua, uztailaren 17koa, zeinak irizpideak aldatzen dituen nahitaezkoak ez diren bidaiak aldi batez murrizteko hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen akordioko beste herrialdeetara, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondoriozko ordena publiko eta osasun publikoko arrazoiengatik. 7051 xedapena - 2 or.
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. – Portuko instalazioak.** - TMA/421/2021 Agindua, apirilaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen diren ontziek sortutako hondakinak eta karga-hondakinak jasotzeko portuko instalazioei buruzko abenduaren 20ko 1381/2002 Errege Dekretuaren II. eta III. eranskinak. 7052 xedapena - 6 or.
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. – Lehengoratzte, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana.** - Ebazpena, 2021eko apirilaren 29koa, Idazkariordetzarena, zeinaren bidez argitaratzen den Lehengoratzte, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana onesten duen 2021eko apirilaren 27ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia. 7053 xedapena - 4 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/04/26

- **SEGURTASUN SAILA.** - EBAZPENA, 2021eko apirilaren 9koa, Trafikoko zuzendariarena, zeinaren bidez baimentzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sareko puntu batean zinemometroak eta irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko haien tresna osagarriak instalatzea eta erabiltzea, trafikoaren kontrola, erregulazioa, zaintza eta diziiplina helburu. **2374 xedapena - 2 or.**

2021/04/29

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 2/2021 FORU DEKRETU-ARAU, martxoaren 23koa, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituen. **2412 xedapena - 9or.**
- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - AGINDUA, 2021eko martxoaren 26koa, Jaurilaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusiko kideak berritzen baitira. **2425 xedapena - 3or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

- **Batzar Nagusiak. - FORU ARAUAK.** - 12/2021 Foru Araua, apirilaren 21ekoa, 3/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 23koa, baliozkotzeko dena, onespina emateko COVID-19arekin lotutako ezohiko neurri osagarriei. **1446 xedapena - 1 or.**
- **Batzar Nagusiak. - FORU ARAUAK.** - 13/2021 Foru Araua, apirilaren 21ekoa, tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen dueña. **1492 xedapena - 13 or.**
- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - Hutsen zuzenketa, ALHAOko 146. zenbakian (2020ko abenduaren 23koa) argitaratutako 3962 iragarkian, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatuaren 654/2020 Foru Agindua, abenduaren 15ekoa, zeinaren bidez aldatzen baitira honako foru agindu hauek: azaroaren 22ko 744/2001, abenduaren 17ko 652/2007, abenduaren 10eko 770/2014, martxoaren 9ko 133/2005 eta irailaren 27ko 529/2017, hurrenez hurren onesten dituztenak 180, 182, 187, 198 eta 289 ereduak **Zuzendua: 3962/2020. 1479 xedapena - 4 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/04/28

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren 720/2021 FORU AGINDUA, apirilaren 19koa, ekainaren 9ko 1634/2009 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez, Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren aurka Borrokatzeko Batzordea sortu eta haren funtzionamendu-arauak ezartzen dira. **I-329 xedapena - 3or.**

2021/04/29

- **Gizarte Ekintza Saila-** . Bizkaiko Foru Aldundiaren 32/2021 FORU DEKRETUA, apirilaren 13koa; horren bidez adingabeen familia-harrera erraztu eta laguntzeko konpentsazio ekonomikoak arautzen dituena. **I-337 xedapena - 8 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO